



## LEAGUE OF LEGENDS 5vs5 TXAPELKETA

### 1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2020ko League of Legends txapelketa **online egingo da oso-osorik**.
- 1.2. Txapelketak formatu hau izango du:
  - **Finalerako sailkatze bat egongo da, urriaren 2an (larunbata), 16:00etan.**
  - **Finala urriaren 3an (igandea) 16:00etan izango da** eta <https://www.twitch.tv/mangamore> bidez ikusi ahalko da.
  - **League of Legends kontu bat eduki behar da, 30 mailakoa eta gutxienez 20 txapeldunakoa, EUWen erregistratua.**
- 1.3. **Parte hartzeko gutxienerako adina 12 urtekoa da.** Mangamore erakundeko antolakuntzak ulertuko du 16 urtetik beherakoek aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena dutela  
**Baimen hori posta elektronikoz ([videojuegos@mangamore.net](mailto:videojuegos@mangamore.net))** entregatu ahalko da urriaren 2a (larunbata) 15:00ak arte. Eranskinean, bete beharreko baimena eskaintzen da, baina eskuz egin daiteke, eduki bera duen bitartean.
- 1.4. **Parte-hartzaileek Espainian bizi behar dute.**
- 1.5. **Ez da sailkapen-plazen mugarik egongo.**
- 1.6. **Urriaren 2an eta 3an, antolatzaileekiko komunikazioa <https://discord.gg/6yXfhhbk> helbidearen bidez egingo da.**

### 2. IZEN EMATEARI BURUZ

- 2.1. **Izen-ematea online egingo da <https://challonge.com/es/mangalol2021> helbidean, oinarri hauek argitaratzen diren unetik urriaren 2ko (larunbata) 15:00ak arte.**
- 2.2. Izena emateko formularioan **datu hauek emango dira:**
  - Taldearen izena
  - Kide guztien izen-abizenak eta jaiotze data
  - Kideen Multi op.gg
  - Kapitainaren helbide elektronikoa
  - Kapitainaren telefonoa (antolakuntza-premiarik izanez gero harremanetan jartzeko)

### 3. TXAPELKETARI BURUZ

- 3.1. Saillkapen hasi baino hamabost minutu lehenago, **urriaren 2an (larunbata) 15:45etan**, chalongean **check-ina irekiko da eta parte hartzea baieztatu beharko da**; parte hartu ezean, taldea txapelketatik deskalifikatuko da.
- 3.2. **Taldeetako kapitainek discordera (<https://discord.gg/6yXfwbk>) sartu beharko dute zalantzak argitzeko eta **partiden emaitzak igortzeko**. Gainera, kanal hau txanda bakoitzaren hasieraren berri emateko erabiliko da.**
- 3.3. **Finala** urriaren 3an (igandea) 16:00etan egingo da **3 partidako onenari** (2 partida irabazten dituen taldea izango da txapelduna).

### 4. SARIEI BURUZ

- 4.1. **Sari hauek emango dira:**

**Talde txapelduna:** 300€

**Talde txapeldunordea:** 150€

- 4.2. **Txapelketa amaitutakoan, antolatzailleak harremanetan jarriko dira posta elektronikoz, dagozkien sariak jasotzeko.**

Inskripzioan emandako datuen benetakotasuna egiaztatzeko, saritutako pertsonari NANaren, txartelaren edo dokumentuaren irudi bat eskatuko zaie (adibidez, familia-liburua), jaiotze-data jasotzen duen legezko balioarekin. Horrela, taldeko kide guztien dokumentua bidali beharko da [videojuegos@mangamore.net](mailto:videojuegos@mangamore.net) helbidera.

Saritutako taldeetan saria sartzeko adinez nagusia den parte-hartzailerik ez badago, antolakuntzak taldeko kideren baten aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin egingo du izapidea.

### 5. ANTOLAMENDUARI BURUZ

- 5.1. **Oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolakuntzak eta epaimahaiaik.**
- 5.2. **Erakundeak partaidetza-testuinguru errespetuzkoa eta dibertigarria sustatu nahi du, bideo-jokoekiko grinaz gozatzeko.**
- 5.3. Lehiaketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez tratatuko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.**
- 5.4. **Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.**



### HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzarik izanez gero, mezu elektronikoko bat bidali dezakezu [videojuegos@mangamore.net](mailto:videojuegos@mangamore.net) helbidera.

## ERANSKINA

### **BAIMENA (LEAGUE OF LEGENDS 5VS5 TXAPELKETA)**

\_\_\_\_\_ jaun/andreak, adinez nagusia , N.A.N. /pasaporte  
\_\_\_\_\_ zenbakia indarrean duena, \_\_\_\_\_-ren aita, ama  
edo tutorea izanik adierazten du:

Oinarriak irakurri ditut eta baimena ematen diot nire semeari/alabari/begi-niniari Mangamore 2021 Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatutako japoniar kulturari buruzko jardunaldian, programaren barruan ospatuko den League of Legends txapelketan parte hartzeko. Txapelketa online egingo da urriaren 2an eta 3an.

\_\_\_\_\_(e)n, 2021eko\_\_\_\_\_aren\_\_\_\_(e)(a)n

Sinatuta,